

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Urduliz



Aurkibidea

Udalerria: Urduliz

Sarrera



Uribe Kostako eskualdean kokatzen da. Urdulizko herri mugakideak honakoak dira: Barrika eta Plentzia iparraldean, Berango eta Erandio hegoaldean, Gatika eta Laukiz ekialdean, eta Sopela eta Berango mendebaldean. Nekazaritza izan zen mende askoan Urdulizko jarduera ekonomiko nagusia. Horrez gain, udalerriaren gunegaraienetan zurgintza zen jarduera nagusia. Azken urteetan, Bilbotik hurbil dagoenez, biztanle asko erakarri ditu herriak.

- **Biztanleak:** 3.139
- **Euskaldunak:** %46,91

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **6**
- Pasarteak: **41**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **15**
- Bideoak: **26**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- IRALeren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Manuel Aranbalza (1923)

Urdulizen jaioa, umetatik lanean hasi behar izan zuen, aita hil baitzitzaion hamar urte zituela. Leioako Azkartza baserrira ezkondu zen. Urte batzuek Bilboko portuan lan egin zuen. Soldadutza Pirinioetan egin zuen, makien garaietan.

Rosario Bilbao Ubillos (1919)



Ama Sopedako eliza ondoko Sipiri kalean jaio zen eta gero Gardoki auzoko baserri batean hazi zen. Aita, oster, Berangoko "Olaitxita" baserrikoa zuen. 1919. urtean jaio zen Urdulizosteiko azkenengo etxean, baina bizitza Santa Mariñe ermita alboan dagoen Goitibera izeneko etxetxoan egin zuen. Hiru neba-arrebatatik gazteena izan zen Rosario. Beste biak mutilak izan zirenez, dena berarentzako izan zela kontatu zigun barre artean. Urdulizeko San Fermin eskolara joan zen urte batzuetan eta bertako kontu asko kontatu zizkigun: irakasleak, jolasak, ikasgaiak... Erromeria zalea izan zen eta berak zioenez, baita dantza asko egindakoa ere.

Jose Antonio Goirigolzarri Iñiguez (1932)



1932. urtean jaio zen Urdulizko Eleizalde auzoan. Ama bertako etxekoandrea zuen eta aita Butroiko Aritxiberre baserrian jaiotako Firestone enpresako langilea. Zazpi neba-arreba izan ziren, bera nagusiena. Urdulizeko lagun koadrila izan zuen eta bertako barrabasik handienak izan zirela kontatu zigun. Hamaika gaiztakeria egindako gizona zela zioen. Anaiekin batera, gaztetatik, igeltsero lanetan jardun zuen eta bizi guztian zehar eraikuntzan eta etxer salmentan lan egin izan zuen. 20 urterekin, soldadutzara eraman zuten eta bertako barrabaskeria eta istorio ugari kontatzen ditu. Handik bueltan, neska-laguna aurkitu, ezkondu eta Berangora bizitzera joan zen.

Tiburzio Ibargarai Mentxaka (1929)

1929an jaio zen Urdulizko Elortza auzoan, Errementarizarra baserrian. Gurasoak Urdulizekoak zituen: ama Tariuko baserrikoa eta aita bere jaiotetxekoa. Ama etxeko-andrea zuen eta aita Erandioko "Franco-española" lantegiko langilea. Eskolara 6 urterekin hasi zen, baina bonbardaketan eskola suntsitu zuten eta bederatzi urte zituela berriro ere eskola berrian hasi behar izan zuen. Eskolatik irten eta 14 urte zituela, Barrikako Goierrira joan zen osaba baten etxera morroi eta handik, anaia batekin, eukaliptoak batzen joan ziren basora. 18 urte zituela, tuberoen ofizioa ikasi zuen Ruiz de Blasko fabrian eta bederatzi urtez jardun zuen bertan. Hurrengo bi urteak Barakaldoko beste enpresa batean egin zituen, Ameriketara nabigatzera joan aurretik. Hortik aurrera fogonero, engradasore... lanetan egon zen Amerika eta mundu guztiko barku askotan; Hego Amerika, Frantzia, Persia... 52 urte inguru zituela, berriro ere Erandioko beste fabrika batean sartu zen, oraingoan garabiak eraikitzen, 54 urterekin jubilatu zen arte.



Mari Tere

Jaione Olabarrieta (1946)

Grabazioa egin zitzaionean, 1999an, 53 urte zituen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Sorgin-kontuak

- **Hizlaria(k):** Goirigolzarri Iñiguez, Jose Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Erref:** URL-007/012
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:23:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Inguruko lehengusuekin elkartzen zen abesteko. Akerlandan akerrak adarretatik sua zeriela ikusten zituztela esaten zuten. Auzoko andre bat sorgina omen zen. Hil zenean, gauetan bidera ateratzen zitzaion semeari. Amak esaten omen zion bizkarrean eramango zuela etxera mozkorrik zegoelako.

Transkripzioa

-Ta alboko, alboko lagunekaz eta...

-Bai, bai, bai, alboko lagunekaz bai. Horrekaz nik esan dotsutenak, horrek Goirigolzarriek, honek Goirigolzarriek hor ezetuko dozuz, horra gora zoazenien, horrekaz beti koadrillan. Eta gabean gitterrie jo, eta kantau.

-A bai?

-Bai, bai, bai. [...] han beheran txokoan ta kantaten ta gitarrakaz.

-Zen kantaten zendun?

-E, ba danerik, guk ondo kantaten [...] e... Ikusiko dozu! Hara joaten bazara, ikusiko dozu.

-Jolin!

-Han [egongo dira] gitarrak. Han ikusko dozu.

-Ze ona!

-Euskera kasi dana, e... Euskera kasi dana kantaten [deu].

-Orduan, juntaten ziñien kantateko eta holan?

-Bai, bai, bai. Gauean ez dau besterik. Han ez dau besterik, etxe baterik bestera. Eta han, oye, [zeinek joko ba, zeineri toketen], atara eik gitarrie! Eta han kontuek konta, atziñeko sorgiñen kontuek konta, ta...

-Antziñeko sorgiñen kontuek? Zeintzuk zien horrek, ba?

-Atziñeko sorgiñek? Ba atziñe... Guzurrek danak, baiñe... Guzurrek izeten zien baia, gauien baterik bestera, ta bat ikusi dala ta "Oye, ahuntze ikusi dot nik haulan sue adarratan ta"... Kontuek. Atzineko kontuek.

"Akerlandatik etorri nok eta, hi ikusi dot han akerrak han alkarren atzean, dana sue ta infernue!" Eta, "koño!" Gero, egon zan han gure auzoan, esaten otsiena andratxu bet, esaten eben sorgiñe dala, esaten ebena, sorgiñe. Eta sorgiñek, geuetan, hil zanian, semiri urtetan otsen gauetan bidera, bidera. Ta mozkortie zan ba, esaten otsen Bizente buzo, [...] euken apellidu eta esaten [...] ama joaten jakola, etorten jakola, danba etorri jakola ama, ta esaten otsela "Bizente, monta neuk erongo dotsut etzera, ze mozkortute zagoz", beran amak, sorgiñek, esaten otsela. Horrek sorgiñek, atziñeko sorginkeriek.

1.2. Lamien orrazia

- **Hizlaria(k)**: Goirigolzarri Iñiguez, Jose Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Andere
- **Erref**: URL-007/013
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:23:20. **Bukatu**: 00:24:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Erreketan lamiak zeuden. Umaraneko Pepe joan omen zen erre kara eta marfilezko orrazia aurkitu omen zuen. Hartu eta etxera eramane zuen eta gauean lamia etorri zitzaion orraziaren bila. Baina Peppek itzuli ez. Hurrengo gauean berriz etorri zitzaion haserre lamia, eta orduan eramane zuen orrazia hartutako tokira.

Transkripzioa

-Ta lamiek... Entzun dozu lamiek iñoz?

-Ez, baie konta!

-Lamiek han gure erreketan lamiek; lamie bakizu zer dan ezta? Lamiek eta, geuetan ta lamiek han, eta, kauen dies, errekea ta... Han Umaranekoa,

Pepe, Pepe Umarane, ta joan hara ta, errekarra, eta han topa eben orrazi bet, orrazie, marfillezko orrazkie. Ta Pepek ikusi [euen] ha, etze ondon biziten zan ta, orrazie ikusi ta etzera eron. Eta geuen ha, lamiek bentanea tanga-tanga-tanga jota, diñotso: “Pepe Umarane, eratsie, eratsie, koixu dozun lekun itxizu nire marfilezko orrazie!” Ta Pepek hurrengo egunen, bape eron ez. Ez eban eron, ez eban bape eron. Ta bigarren egunien barriro lamiek, ta barriro, baia zer txarragaz. “Pepe Umarane, eratsi, eratsie, itxitzen ez badostezu niri koixu dozun marpillezko orrazie, nik ingo dot zure akabue eta askazie!” Hurrengo egunien goixean, lehenengo-lehenengo orrazie Pepek errekarra. Bai. Horrek, atzineko kontu zaharrak.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Hilabeteen izenak (URL-007/002)

Hilabeteen izenei buruz dio eurek erdi erdaraz esaten dituztela; gazteek euskaraz esaten dituztela.

2. Lehengo euskara, Goierriko euskara (URL-007/005)

Orain gehienak euskaldun berriak dira. Antzinako euskaldun gutxi geratzen dira. Hiletetan elkartzen direnean, lehengo euskara, Goierrikoa, entzuten da. Erandioko euskara apur bat ezberdina da; adibideak ematen ditu.

3. Gurasoen baserriak (URL-007/006)

Ama Osabane baserrian jaio zen. Aita Butroiko Aritxiberre baserrikoa izan zen. Gurasoen eta baserrien izenen berri ematen du.

4. Jose Antonioren gurasoak (URL-007/008)

Amak beti egin du behar aldea-etxean; aitak Firestonen eta Deltan egin zuen lan.

5. Eskolara eta akademiara (URL-007/010)

Urdulizen joan zen eskolara. Gero, Bilbora joan zen bizitzera osabarenera eta han jarraitu zuen ikasten. Hamalau-hamabost urtera arte Urdulizen ibili zen eskolara, eta gero Bilbon akademia batean hamasei hamazazpi urtera arte.

6. Baserriko lanak amaren inguruan (URL-007/011)

Goizean jaiki, soroan edo, lan egiteko, edo ganadua jagoteko, baina berak ihesi egiten zion lanari. Amaren inguruan aritzen ziren. Goizean taloa eta esnea hartzen zuten, eguerdian lapikokoa. Iluntzean taloa eta esnea eta ohera.

7. Sorginaren alaba sorgina (URL-007/015)

Sorginaren alaba ere sorgina izan omen zen. Heriotza txarra izan zuen, eta esaten zuten Jaungoikoak sufriarazi ziola sorgina zelako.

8. Zantzoka gauean (URL-007/016)

Antzina ez zen kaminorik egoten, eta gauez zantzoak entzuten ziren basoko bideetan. Batak bota eta besteak erantzun beste mutur batetik. Behin batek bota zuen zantzoa eta berak baino hobeto erantzun zion, eta hala jarraitu zuten, baina gero eta hurbilago entzuten zuen. Azkenean alboan entzun zuen, korrika hasi eta etxean sartu eta atea itxi zuen. Hurrengo egunean hamar atzamar markak atean, egurra erreta, aurkitu zituen. Laukizko kontua da.

9. Gauerdiak (URL-007/017)

Gaueko ilunpean argiak ikusten zirenean, gauerdiak zirela esaten zen. Hilerritik irteten ziren arimak edo, omen ziren; argiarekin hegaz ibiltzen omen ziren.

10. Hodei guztien azpitik eta sasi guztien gainetik (URL-007/018)

Butroiko aititak kontatzen zuen amamari buelta bat ematera zihoala esan eta sorginaren bizkarrean jarri, hark txori handi baten forma hartu eta hegan joaten zela "sasi guztien gainetik eta hedoi guztien azpitik" Euskadi guztiaren gainetik, toki berera itzuli arte. Behin sorginak erratuta, "hedoi guztien azpitik eta sasi guztien azpitik" esan zuen eta zauriz beteta itzuli zen etxera aitite, eta amamak ez zuen etxean hartu gura izan.

11. Butroira heltzen ziren ijitoak (URL-007/020)

Antzina, ijitoak karabanatan etortzen ziren, eta Butroiko zubiaren azpian geratzen ziren. Euskaldunak ziren, eta haiekin konkordun gizontxo bat etortzen zen. Behin beste bati buruz galdetu hari eta jan egin zutela erantzun zien. Amamari gezurra esan eta ijitoen ezkontzara joan zen Isaac. Amamak ikusi zuenean ijitoekin parrandan haserre itzela egin zion.

12. Ijitoekin lagun handi (URL-007/021)

Orain ere ijitoen laguna da. Larunbatetan elkartzten da batzuekin. Ijitoen bilera handietara ere gonbidatzen dute.

13. Amama ez zen fiatzen beragaz (URL-007/022)

Oso bihurria zenez, amamak ez zion begia gainetik kentzen. Behin txahala hiltegiara eraman, dirua kobratu eta amamari eman zion bueltan. Ea zenbat ostu zion galdetu zion amamak, eta berak ez zuela ezer ostu; papera erakutsita ere ez zion sinistu amamak.

14. Gaztetako bihurrikeriak (URL-007/023)

Gaiztakeria asko egindakoa da. Leioan zuen emaztegaia, eta hura etxera lagunduta, Urdulizera basorik baso oinez etxera joaten zirenean, bideko baserrietan kanpoan zintzilik hurrengo egunean saltzeko prest zuten esnea edaten zuten. Inoiz egin du solte zegoen zaldiren bat hartu, haren gainean joan Laukizera eta han askatu; etxera itzultzen zen zaldia.

15. Erromeriatik sorora (URL-007/024)

Laukizera joaten zirenean beti iskanbilak sortzen zituztenez, alkateak (bere osaba zen) debekatu egin zion herrira sartzea. Urdulizen eta Berangon ere istiluak sortzen zituzten. Behin, Larrauriko erromeriatik goizean heldu zen etxera, eta beti bezala leihotik sartzen hasi zenean, aita zuen zain soroan lanean hasteko.

16. Avileseko nobia bila etorri zitzaionekoa (URL-007/025)

Avilesen izan zuen nobia soldadutzan zegoela. Lizentziatuta etxera itzuli zenean, nobiaren aitak esan zion familiarekin egon ondoren itzultzeko hara nobia eta lana izango zituela aginduta. Ez zen itzuli, eta Algortako jaietan, noriatik ikusi zituen behean: Urdulizko apaiza, ama, Avileseko nobia, honen ahizpa eta koinatua. Itzuli zen zortzi egunerako Avilesera, baina etxera etorri zen berriz.

17. Neska-laguntzea (URL-007/029)

"Guzu lagundu?" galdetzen zitzaien neskei; ezin zitzaien bizkarretik heldu. Musu bat emateko urtebete pasatu behar zen, eta behin emanda korrika alde egin.

18. Behiari buztana moztu (URL-007/032)

Lagunaren etxeokak eta auzokoak erdi haserre zebiltzan. Behin lagunaren etxeok ukuiluan txiza egiten zeudela behi batek lagunari buztankada bi eman zizkion, eta lagunak buztana ebaki zion behiari, baina aitari aitortu ez. Aitak 30 urtean ez zuen auzokoarekin berba gehiagorik egin.

19. Baserriak: Osabane eta Azkorre (URL-007/033)

Osabane eta Azkorre baserrien kokapena argitzen du.

20. Angulatan (URL-007/035)

Etzetik irten eta hiruzpalau kilometrora, presara, joaten ziren angulatan. Bahea erabiltzen zuten eta harresiak zituzten eginda. Bakoitzak bere lekua zuen. Tabako ura botata hiltzen ziren, eta hilda saltzen ziren.

21. Igeltseroek lehen lan gogorragoa (URL-007/036)

Igeltsero lanak lehen gogorrak ziren, orain ez. Trenera joateko lau kilometro egin behar ziren oinez, euri nahiz aterri. Kaminora joateko ere basoko bidexka batetik. Larunbatetan ere lan egiten zen. Domeketan baserriko lanak egin behar zituzten.

22. Mezatara lantzean behin (URL-007/037)

Domeketan ez zan mezatara joaten. Familia joaten da. Butroiko baseliza batera noizean behin joaten ziren, pilotan ibiltzeko edo.

23. Txikitako gaiztakeriak (URL-007/038)

Eskolara sartzen zirenean, Francoren aldeko aldarria egin behar zuten. Irakaslearen kexa asko zituzten gurasoek. Eskolatik etxera bidean gurdiei buelta eman, sasiei su eman, hormak bota.

24. Domeketan "jolasera" (URL-007/039)

Sokatiran ibiltzen ziren. Bizkaiko txapeldunak izandakoak dira. Domeketan eta egun berezietan joaten ziren "jolasera", erromeriara. Hainbat neska-lagun izan eta gero, Margaritarekin ezkondu zen.

25. Izen euskalduna ipintzearren, isuna (URL-009/002)

Gazte garaia tristea izan zela dio, Francorengatik. Bere anai Iñakiri izen hori ipintzearren, amari hamar pezetako isuna ipini zioten.

26. Urdulizko eta inguruko hizkeren arteko aldeak (URL-009/003)

1951n Leioara joan zen, Azkartza baserrira. Hizkeran nabaritzen zituen aldeak izendatzen ditu.

27. Algortara zinemara (URL-009/005)

Urduliz txikia zen eta Algorta ere bai. Algortara zinemara joaten zen gaztetxotan. "Tarzan en Nueva York" dauka gogoan.

28. Bilboko portuan lanean (URL-009/007)

Euskaraz zekien galiziarraren anekdota. Portuan zelako ontziak ibiltzen ziren kontaktzen du. Ikatza edo minerala deskargatzen zuen Manuelek. Eskuz lan egiten zuten.

29. Bilboko portuko garabiak eta itsasontziak (URL-009/008)

Garabiak beti ezagutu ditu portuan. Lana banatu egiten zuten ahal zenean. Bostehun pezeta irabazten zuten. Itsasontzien izenak aipatzen ditu.

30. Euskaraz egitearren lotsatu (URL-009/009)

Euskararekiko sentimendua azaltzen du. Euskaraz hobeto dakitenekin lotsatu egiten dela dio. Bere euskarari barre egiten zieten Nafarroan soldadutza garaian, baina euskaraz egiteko eskatzen zioten.

31. Makien garaian soldadu Pirinioetan (URL-009/010)

Makien garaian ibili zen soldadutzan Pirinioetan, baina ez zekien makiak zer ziren. Makiekin berbetan egon zirenekoa kontaktzen du. Soldaduetako batek jakinarazi egin zion alferezari eta denak mugiarazi zituzten basora, baina galdu egin ziren.

32. Indabak eta patata, onenera (URL-009/012)

Egunerokoan indabak eta patatak jaten zituzten, bereziki. Errazionamenduko kartillarekin janari oso gutxi banatzen zuten. Estraperloa bazegoen baina ez zeukaten dirurik ordaintzeko. Hamasei urterekin hasi zen lanean kontratista batekin.

33. Emakumeak lanean Bilboko portuan (URL-009/015)

Lanarekiko jarrerari buruzko iritzia ematen du. Oraingo lana errazagoa dela dio. Bilboko portuan lanean emakumeak ere aritzen ziren lanean; zakuak josten edo zementua deskargatzen ibiltzen ziren.

34. Santa Marinara erromerian (URL-009/016)

Jai egun nagusiak aipatzen ditu. Santa Marina ermitako mezara prozesioan joaten ziren Urduliztik eta Sopelatik. Leku gutxi zegoen dantzarako han. Txistulariak debekatuta zeuden.

35. Lehenengo etorkinen bizi egoera (URL-009/019)

Gerora lan asko hasi zen eta jendea etorri zen kanpotik. Extremaduratik etorritako gizon baten bizipenak kontatzen ditu.

36. Karramarroak Ibaizabalen (URL-009/021)

Ibaian karramarroak harrapatzen zituzten. 50. eta 60. hamarkadan hasi ziren hobeto bizitzen.

37. Anaia Gineatik egurra ekartzen (URL-009/024)

Marinel ibili zen anaia Ginean (Afrikan) hil zen. Handik ekartzen zituzten egurrak izendatzen ditu eta zertarako erabiltzen diren azaltzen du.

38. Inguruko bertsolariak (URL-009/025)

Urduliz inguruko bertsolariak: Florencio Zarraga, Uriarte leioztarra, Ramon Ardeo...

39. Dotrina eta sermoiak euskaraz (URL-009/031)

Eskolan hamabi urtera arte ibili zen, gerra hasi zen arte. Eskolan erdaraz egiten zuten baina katekesian euskaraz. Meza latinez entzuten zuten, baina sermoia euskaraz edo erdaraz. Galiziako lagun batek kontatutako istorioa kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com